




NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA
@irazustabarrena



Banaketa bidegabearen arkeologia

Ponpeia, K.o 79. Vesuvio sumendiak botatako errautsek Erromatar Inperioko hiri hartako bizimoduaren xehetasunak gorde zituen, baita desberdinkeria sozial eta ekonomikoen aztarnak ere. Beste arkeologia gune zaharrago eta berriago batzuetan arrastoak hain ondo gorde ez diren arren, Michael E. Smith eta Timothy Kohler arkeologo estatubatuarrek Ponpeia eta beste 62 aztarnategi aztertu dituzte, komunitate horietan ondasunen banaketa nolakoa zen ondorioztatzeko eta *Ten Thousand years of Inequality* liburuan bildu dituzte emaitzak.

Horretarako etxebizitzaren tamaina hartu dute oinarri. Berez, estatus ekonomikoa neurtzeko irizpide hori erabiltzea ez da oso berritzailea, baina azterketaren egileek antzinako 63 komunitate horietako bakoitzaren Giniren koefizientea kalkulatzeko erabili dute. Corrado Gini estatistikari italiarrak 1912an sortua, ondasun banaketaren desparekotasuna neurtzeko erabiltzen da datu hori, Otik 1era doazen balioen bidez: 0 erabateko berdintasuna da eta 1, aldiz, ondasunen erabateko kontzentrazioa gutxieneko aberatsenaren eskutan.

Arkeologoen aztertutako aztarnategirik zaharrena Jerf el Ahmar da (egungo Siria), duela 11.200 urtekoa. Giniren koefizientea 0,12koa zen Eufrates ibaiaren ertzeko herrixkan. Ponpeian, aldiz, 0,54ra igo zen duela ia 2.000 urte. Eta 2016an AEBen koefizientea 0,81ekoa zen. Ondo-



JERF EL AHMAR AZTARNATEGIA (SIRIA), DUELA 11.200 URTEKOA. HORI ETA BESTE 62 AZTARNATEGI AZTERTU DITUZTE HISTORIAN ZEHAR ONDASUNAK NOLA BANATU DIREN JAKITEKO.

ria garbia da: denborak aurrera egin ahala, ondasunen banaketan dagoen berdintasunik eza geratzeko eta nabarmenagoa da.

Hala ere, Smith eta Kohlerrek osatutako grafikoan, goranzko joera duen marra horrek gorabeherak ditu. Esaterako, Egiptoko Kahunen, duela 4.700 urte, desparekotasuna 0,68koa zen, Ponpeiakoa baino handiagoa, eta K.o. 300. urte inguruan Teotihuacanen (Mexiko) 0,12raino egin zuen behera. Mexikon bertan, Tenochtitlanen, Giniren koefizientea 0,30koa zen oraindik europar konkistatzaileak iritsi zirenean. Handik aurrera,

igoera nabarmena izan zen. Hortaz, ondasunen kontzentrazioa geratzeko eta handiagoa ez da soilik denbora kontua izan. Ikerlarien arabera, “gizarte bat teknologikoki zenbat eta aurreratuagoa egon, ondasunak orduan eta kontzentratuago daude”. Alegia, teknologiak banaketa bidegabea eragiten duela.

Kontua da NBEren arabera 0,40tik gorako koefizienteak larriak direla “gizarteak nekez egin diezaiokelako aurre aberatsen eta pobreen arteko halako polarizazioari”, eta milaka urte batzuk badi-rela marra gorri hori gainditu dela. ●



Giza pandemia zaharrenaren arrastoak Suedian

Besteak beste XIV. mendeko Izurri Beltza eragin zuen *Yersinia pestis* bakterioaren DNA arrastoak aurkitu dituzte Suedian, Neolitoko hainbat nekazariren hezurretan. Hezurak duela 4.900 urte ingurukoak dira eta, hortaz, historiako lehen giza pandemiaren froga dira. Goteborgeko unibertsitateko adituen arabera, izurria men-

de batzuk lehenago, duela 5.700-5.000 urte, sortu zen Itsaso Beltzaren iparraldean, eta merkataritza-bide berriek gaitasuna Europa osoan eta Asiaraino zabaltzen lagundu zuten. Hala, gurpilari eta animalien trakzioari esker, nekazaritza- eta desberdintasun ekonomikoek gain, bakterioak ere hedatu ziren. ●